

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen (EA) eta udal-enpresa publikoen lan-poltsak kudeatzeko irizpideak.

Durangoko Udaleko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko otsailaren 17ko erabakiaren bidez onartu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 30ean, honako erabaki hauek hartu zituen:

1. Durangoko Udaleko, haren erakunde autonomoetako eta empresa publikoetako udaleko lan-poltsak kudeatzeko irizpide aldatuak onartzea, erabaki honi erantsita doazenak.
2. Erabaki hau eta honekin batera doan eranskina Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Durangoko Udalaren webgunean argitaratzea.

Durangon, 2020ko urriaren 30ean. —Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja

**DURANGOKO UDALAREN, BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN (EA)
ETA UDAL-ENPRESA PUBLIKOEN LAN-POLTSAK KUDEATZEKO IRIZPIDEAK**

1. Poltsa propioen osaera eta deialdiak.
2. Poltsa propioen iraunaldia eta lehentasuna.
3. Poltsak lagatzea eta protokoloa, poltsa propiorik ez dagoenean.
4. Lehentasuna norberaren poltsetan.
5. Poltsa propioen zerrendetako egoerak eta aldaketak.
6. Enplegu hobekuntzak.
7. Izendapenen eta kontratuen iraupena.
8. Poltsak kudeatzeko batzordea.
9. Desgaitasuna duten pertsonak.
10. Derrigortasun-data iraungita duten hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak.
11. Argitaratzea.
12. Aurreko erregulazioaren jadanekotasuna eta ondorioak galtzea.

Bitarteko funtzionarioentzako eta aldi baterako langile izateko pertsonak hautatzeko, ahalik eta azkarren jokatzuz zehaztuko diren prozedurak erabiliko dira publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-printzipioei jarraituz eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 33. artikulua agintzen duen moduan. Izangaiek kasuan kasuko lanpostua betetzeko eskatzen diren titulazio-baldintza orokorrak eta gainerako baldintza guztiak bete beharko dituzte. Azaldutakoarekin bat, honako irizpide hauek formulatzen dira, baina Durangoko Udaleko Udaltzaingoiari ez zaizkio berariaz aplikatuko:

1. Poltsa propioen osaera eta deialdiak

Lan-poltsa propioak lan finkorik ez duten pertsonen osatuko dituzte; bestela, Durangoko Udalak, haren erakunde autonomoek edo udal-enpresa publikoek deitutako hautaketa-prozesuetako ariketaren bat gainditu dutenek, edo «ad hoc» egindako deialdien ariketaren bat gainditu dutenek.

Hautaketa-prozesu bat amaitzen den bakoitzean, poltsaren emaitza argitaratuko da.

Nahiz eta zerrendak eta poltsak osatzen dituzten pertsonen zerrenda berdina izan, kontzeptualki desberdinak dira. Beraz, bakoitza dagokion araubide juridikoaren arabera arautuko da; hau da, dokumentu honetan jasotako irizpideen arabera edo funtzionario izateko araudiaren arabera.

Horrela, lan-poltsa propioak bi zerrendatan banatuko dira, lan-poltsa bakoitzarekin bete beharreko aldi baterako beharren iraupenaren arabera. Era berean, zerrenda bati edo besteari jarraituz egiten diren deialdiak desberdinak izango dira: uko egiteko arrazoiak onartzeko, epeak justifikatzeko... Horri dagokionez, ordezkapenen kasuetan udaleko Langileen Sailak ordezkatu beharreko langilearen baja-parte badu, bajaren iraupenaren arabera jokatuko da, hau da, pe laburreko edo epe luzeko beharrezana aurreikusiko da eta, betiere, hurengo ataletan ezarten dena aintzat hartuko da.

Deialdien kudeaketari dagokionez, Durangoko Udaleko Giza Baliabideen Sailak idatziz jasoko du egindako telefono-deien zerrenda, bai eta dei horien data eta ordua ere. Telefono-deiak erantzuten ez direnean, e-mailak bidaliko dira, eta horien kopia gordeko da.

1.1. Iraupen laburreko beharretarako zerrenda eta deialdiak

Iraupen laburreko premiazat hartzen dira 1.2. ataleko lehen paragrafoaren arabera iraupen luzekoak ez diren guztiak, aurreikusitako iraupena hiru (3) hilabetetik beherakoa baita.

Zerrenda horietako eskaintzen jakinarazpenak egiteko, ohiko eta premiazko zerbitzu-prestazioak bereiziko dira.

Eskatzen diren baldintzak betetzen dituen zerrenda erabilgarriko lehen kidea aukatuko da (bai orokorrak eta bete beharreko lanpostutik eratorritako berariazkoak, bai eskaintako kontratu-tipologiakoak ere).



Oro har, zerbitzu-prestazio arruntak direnean, dagokion hautagaiari bi dei-saiakera egingo zaizkio egunean zehar, eta gutxienez orubete igaro beharko da bi deien artean. Bi saiakera eta gero pertsona horrekin hitz egitea lortzen ez bada, zerrendako hurrengo hautagaiari deituko zaio. Edonola ere, Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jar dadin posta elektronikoko edota SMS mezu bat bidaliko zaio txanda igaro zaion hautagaiari.

Hautagaia ez bada hiru (3) egun balioduneko epean Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jartzen, «aurkitu-ezinezkotzat» joko da, eta haren egoera aldatu egingo da dagokion zerrendan.

Hautagaiak lan-eskaintzaren berri izaten duenetik, hiru (3) orduko epea izango du eskaintza onartzeko edo hari uko egiteko. Eskaintzari erantzun ezean, uko egitea justifikatu gabekotzat joko da.

Hautagaiak eskaintzari uko egiten badio 5.4.c) atalean jasotako arrazoi justifikaturen bat alegatuz, arrazoi hori agiri bidez egiaztatzeko hiru (3) egun balioduneko epea izango du, betiere eskaintza egin zitzaion unetik zenbatzen hasita.

Premia larrien kasuan, dagokion hautagaiari telefonoz gehienez bi komunikazio-saiakera egingo zaizkio, eta interesdunak eskaintza egiten zaion unean bertan erantzun beharko du onartzen duen ala ez. Premiazko estalduratzat hartuko dira aurreikusi ezin daitezkeen beharrak; batez ere lanerako ezintasun iragankorreko ordezkapenak betetzeko direnak, baldin eta zerbitzu-jendaurreko ordutegi osoa edo haren zati bat ixtea badakarte edo gutxienezko arreta ematea ezinezkoa bada. Hilabete baino gehiago iraungo duten kontratazioetarako ez da, inola ere, deialdi-sistema hau erabiliko. Horri dagokionez, deialdi horiek egiteko unean Langile Sailak ordezkatu beharreko langilearen baja-parteia badu, zati horretan adierazitako bajaren iraupenaren aurreikuspenaren arabera jardun beharko da nahitaez. Eskaintza horiei uko egiteak edo ez erantzuteak ez du egoera-aldaketa ekarriko, eta ez zaio ezarriko 5. Salbuespen gisa, kategoriatan jakin bateko poltsarik ez badago, goragoko kategorietako lan-poltsak erabili ahal izango dira lanpostu horiek betetzeko, betiere ezagutza-eremu berekoak badira (administrariak / harrera-herritarren arretatik administrari laguntzailerak / harrera-mantenua, brigadako ofizialetik brigadako peoira, lorazaintza ofizialetik lorazainera...) eta urgentziaz estali beharreko beharrezanetara egokitzen denean.

1.2. *Iraupen luzeko beharretarako zerrenda eta deialdiak*

Iraupen luzeko premiaztat hartzen dira hiru (3) hilabetetik gorako estaldura izatea aurreikusten dutenak, hala nola honako hauek: lanpostu hutsak, txanda-kontratuak, liberazio sindikalengatikordezkapenak, eszedentziak, zerbitzu-eginkizunak, zerbitzu bereziak, osasun-arrazoiengatikordezkapenak, programa-kontratuak, zereginen metaketak, lizentziak edo baimenak, edo aldi baterako ezintasunak, baldin eta gertaera eragiletik hiru (3) hilabete baino gehiago igaro direla aurreikusten bada.

Zerrendan lehenengo dagoenari deituko zaio eskatzen diren baldintzak betetzen baiditu (bai bete beharreko lanpostutik, bai eta eskaintako kontratu-motatik eratorritakoak).

Iraupen luzeko beharrezan kasuan, dagokion hautagaiari bi dei-saiakera egingo zaizkio egunean zehar, deien artean gutxienez orubeteko aldearekin. Baina kasu horretan, aipatutako bi saiakeren ondoren hautagaiarekin komunikatzerik lortu ez bada, txanda igaro baino lehen, e-mail bat edo SMS bat bidaliko zaio, eta eskaintza egin dakion Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jarri ahal izango da hurrengo eguneko 12:00ak arte.

Aipatutako epean harremanetan jarri ez bada, telefono mugikorraren bidez harremanetan jartzeko ahalagin gehigarri bakarra egingo da, eta eskaintzari berehala erantzun beharko dio. Azken kontaktu-saiakera hori emaitzarik gabekoa bada, poltsako kidea zerrenda horretan «aurkitu ezin» egoeran jarriko da.

Hautagaiak lan-eskaintzaren berri izaten duen momentutik, hurrengo eguneko 9:30ak arte izango du denbora izendapena onartzen duen ala ez idatziz, email bidez, adierazteko. Eskaintzari ez erantzutea justifikaziorik gabeko uko egitetzat hartuko da.



5.4.c) atalean jasotako arrazoi justifikatu bat argudiatuz hautagaiak eskaintzari uko egiten badio, arrazoi hori agiri bidez egiaztatzeko hiru (3) egun balioduneko epea izango du, betiere eskaintza egin zitzaion unetik zenbatzen hasita.

2. Poltsa propioen iraunaldia eta lehentasuna

Poltsa propio baten eraketa, lehenespena eta erabilera zehazteko, «ad hoc» hautaketa-prozesuaren edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoa hartuko da kontuan. Hala ere, arau orokor gisa, poltsa berri bat onartzeak, automatikoki, kategoria eta tipologia bereko (bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudunak) aurreko lan-poltsak indargabetzea eta jadanekotasuna galtzea ekarriko du, honako egoera hauetan izan ezik:

1. Poltsa berria erakunde autonomo jakin batek edo udal-enpresa publiko batek egindako «ad hoc» hautaketa-prozesu edo deialdi baten emaitza denean, horrek ez du ekarriko Durangoko Udalean edo gainerako erakunde autonomoetan edo udal-enpresa publikoetan indarrean dauden kategoria bereko lan-poltsak bertan behera uztea edo baliogabetzea. Eta lehentasuna emango zaio beste edozein lan-poltsaren gainetik, erakunde edo udal-enpresa publiko jakin horri dagokionez, baina ez udalari edo gainontzeko erakunde autonomo edo udal-enpresa publikoei dagokienean.
2. Erakunde autonomoek edo udal-enpresa publikoek lan-poltsa propioak badituzte araudi hau onartzen den unean edota onartu eta gero, Durangoko Udalak horiek erabili ahal izango ditu lan-poltsarik ez duen edo hutsik duen kategorietan.

Nolanahi ere, irizpide hauek onartatu ondoren sortzen diren lan-poltsen indarraldia 5 urtekoa izanen da gehienez.

Bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudun langileak izendatzeko zerrendak azpitalde bereko lanpostuetarako eginikoak izan beharko dira, salbu eta irizpide hauetako 1.1. puntuaren azken paragrafoan urgentziatzeko deialdietarako aurreikusten denaren kaltetan izan gabe.

3. Poltsak lagatzea eta protokoloa, poltsa propiorik ez dagoenean

Durangoko Udalak, bere erakunde autonomoek edo udal-enpresa publikoek ez badute kategoria jakin baterako poltsarik, edo hautagaiek ez badituzte eskaintzak onartzen, beste administrazio batzuei eskatuko zaie lan-poltsak lagatzeko, honako hurrenkeraren arabera:

- Lan-poltsak erabili ahal izateko beren beregi hitzarmena izenpetu den administrazioak, betiere, hitzarmen horretan aurreikusten diren kategoriak aintzat hartuta.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Hautaketa-prozesuetan Durangoko Udaleko karrerako funtzionarioek epaimahai-ko kide gisa parte hartu duten udalak, soil-soilik epaimahaiko kide gisa parte hartzen duten prozesu zehatzetatik sortutako lan-poltsari dagokienez. Baldintza hori betetzen duten poltsak bat baino gehiago badira, berrienetik hasi eta zaharrenean lehenetsiko dira.
- IVAP.
- EAEko hiriburu-udalak: Bilbo, Gasteiz eta Donostia hurrenez hurren.
- Eratu daitezkeen Bizkaiko Foru Aldundiaren GLFE eta beste erakunde autonomoak.
- EHU.
- Kategoria zehatz bati dagozkion lan-poltsak dituzten bestelako euskal administrazio publikoak.

Hala ere, kasuan kasuko eskaintzen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, administrazio horietako batzuetara joateari utzi ahal izango zaio, baldin eta lanpostu-zerrendetan dagokion kategoriako lanposturik ez badago, edo ageriko beste egitate batzuk badaude, eta, zalantzarik gabe, ondorioztatu badaiteke ez dutela lan-poltsarik dagokion kategorian. Ondorioz, aurreikuspen hori aplikatzen den guztietan, espedientean jaso beharko dira horretarako egindako egiaztapenak edo dagozkion froga-elementuak.



Onartzeko edo uko egiteko epeak eta horiek gauzatzeko bideak eskaintzen den izendapenaren edo kontratuaren iraupenaren aurreikuspenaren arabera dagokion eskaintza-sistamarako ezarritakoak izango dira, 1.1 eta 1.2 ataletan ezarritakoari jarraituz. Horri dagokionez, ordezkapen bat bada eta deialdiak egiteko unean Langile Sailak ordezkatu beharreko langilearen baja-parte badu, parte horretan jasotako bajaren iraupenaren aurreikuspenaren arabera jardun beharko da nahitaez.

Aipatutako bide guztiak agortuta, edo salbuespen gisa sailaren burutzak, erakunde autonomoek edo udal-enpresa publikoek orain arte deskribatutako sistemaren arabera hautagai egokiak lortzeko ezintasuna behar bezala arrazoitzen badute, eta kasu jakin batean eskatzen den ezohiko lanbide-profila dela eta, enplegu-zerbitzu publikoetara jo ahal izango da, honako protokolo hau aplikatuta:

- Dagokion sailak horri buruzko justifikazio-memoria bat egingo du, eta Giza Baliabideen Sailari bidaliko dizkio, idatziz, honako hauek: titulazioa eta lanpostuaren gainerako funtsezko betekizunak eta ezaugarriak, epaimahaikideen nortasuna, hautagaiak ordenatzeko irizpideen baremoa eta ezarpena, eta hautagaiak inskribatzeko emango den epea. Epaimahaia bost pertsonak osatuko dute, indarrean dagoen legezko araudia aplikatuz.
- Giza Baliabideen Sailak enplegu-bulegoari (Lanbide) eskatuko dio LPZn (lanpostu zerrendan) jasotako lanpostuko baldintza guztiak betetzen dituztenen zerrenda. Deialdia Lanbideren webguneko «Enplegu Publikoa» atalean argitaratzeko eskatuko du, ahalik eta hautagai gehienek eskaintzaren berri izan dezaten. Era berean, Durangoko Udalaren webgunean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da interesatuek Lanbiden izena eman beharko dutela.
- Behin horretarako epea amaituta eta Lanbidek onetsitako pertsonen curriculumak jasota, epaimahaiak aurrez ezarritako baremoaren arabera baloratuko ditu merituak, eta puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko ditu hautagaiak.
- Giza Baliabideen Sailera hautagaien zerrenda bidali ondoren, han eskaintzak egingo dira, 1.1 atalean iraupen laburreko beharretarako aurreikusitako eskaintza-sistemarako modua erabiliz.

Eskaintza zehatz hori egiteko baino ezin izango da erabili aipatutako prozedura, eta poltsa beraren bidez ezin izango da inolako deialdirik egin hura eragin zuen arrazoiak bestelako arrazoei erantzuten dieten etorkizuneko deialdietarako.

4. Lehentasuna norberaren poltsetan

Poltsa bakoitzeko kideen lehentasun-hurrenkera gainditutako ariketa-kopuruaren eta hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera izango da, eta handienetik txikienera ordenatuko dira. Horrela, ariketa guztiak gainditu ondoren, eta prozeduraren fase guztiak kontuan hartuta, puntuaziorik altuena duten pertsonetatik hasiko dira beti deiak. Ondoren, nahitaezko azken ariketa gainditu ez zutenekin jarraituko da, azken ariketa horren puntuazioa kontuan hartuta. Horrela, hurrenez hurren, lehenengo ariketa gainditu zutenetaraino. Gerta liteke kasuren batean beste baldintza zehatzen bat egotea, adibidez: hizkuntza-eskakizuna, berariazko gidabaimena, adina, ezagutza berezia edo beste edozein.

Kontuan hartuta sarbidea hainbat txandetatik etor daitekeela, txanda horiek pertsona-zerrenda bakar bat finkatuko dute. Ordena honako hau izango da: lehenik, hautaketa-prozesu osoa gainditu duten pertsonak, eta, horien artean, puntuazioaren arabera ordenatuta. Barne-sustapeneko txandatik datozenak lehenengo eta txanda irekikoak ondoren. Aipatutako taldeetan, lortutako puntuazioaren arabera lehenetsiko dira. Ondoren, gainditutako derrigorrezko ariketa kopuruaren arabera ordenatuta joango dira.

Kontratua edo bitarteko funtzionario-aldia amaitu ondoren, hautatutako pertsona, berriro, irten zen poltsara itzuliko da, lehen zegoen postu berera.

5. Poltsa propioen zerrendetako egoerak eta aldaketak

5.1. Lanerako prest

Lanerako prest egongo dira, eta, beraz, eskaintzak jasotzeko egoeran, jarraian aipatuko diren gainerako egoeretako batean ez dauden pertsonak.



5.2. *Aurkitu ezinezko egoeran*

Egoera horretan egongo dira eskaintza bat egin nahi izan zaien hautagaiak, baina 1.1. eta 1.2. ataletan ezarritako epeetan Durangoko Udaleko Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jarri ez direnak. Horri dagokionez, zehaztu gabeko eskaintza-saiakera bakoitzaren ondoren, gehienez ere sei (6) hilabeteko epean egon ahal izango dira aurkitu ezinezko egoeran. Epe horretan Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jarri ez den, eta eskaintza egiten saiatu den unean hura baztertzeko behar bezala justifikatutako arrazoi bat dagoela egiaztatu ez duen hautagai oro behin betiko baja-egoerara igaroko da zerrendan.

5.3. *Behin betiko baja*

Hautagaiak behin betiko baja-egoerara igaroko dira dagokion zerrendan, salbu eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, honako kasu hauetan:

- a) Dagokion zerrendan, aldi baterako baja ez dakarren lanpostu batera itzultzeagatik.
- b) Dagokion zerrendan, kontratua edo izendapena amaitu aurretik sinatutako kontratu edo izendapenera borondatez itzultzeagatik, non eta ez den berehala Durangoko Udaleko, haren erakunde autonomotako edo udal-enpresa publikotako edo beste edozein administrazio publikotako beste lanpostu batean zerbitzuak ematen hasteko.
- c) Dagokion zerrendan, hiru (3) egun balioduneko epean aldi baterako bajaren arrazoi alegatua egiaztatzen duten agiriak ez aurkezteagatik, edo egindako eskaintzari erantzun justifikaturik ez emateagatik.
- d) Dagokion zerrendan, hautagaia aldi baterako baja-egoerara igarotzea eragin zuen arrazoiak amaitu eta hamar (10) egun balioduneko epean lanerako prest egoerara itzultzeko eskatzen den dokumentazioa ez lizitatzeagatik eta ez aurkezteagatik.
- e) Dagokion zerrendan, sei (6) hilabetetik gorako aldian aurkitu ezinezko egoeran egoteagatik, betiere harremanetan jartzeko ahalegin egokiak egin badira.
- f) Bi zerrendetan, Durangoko Udaleko, haren erakunde autonomotako edo udal-enpresa publikotako edo beste edozein administrazio publikotako kategoria bereko karrerako funtzionarioaren edo lan-kontratudun finkoaren kondizioa eskuratzegatik.
- g) Bi zerrendetan, Durangoko Udalak zigor larri edo oso larri bat jartzeagatik.
- h) Bi zerrendetan, lanpostuari esleitutako eginkizun nagusiak eta zereginak ez betetzeagatik. Kasu horretan, zerbitzuak ematen ari den departamentu-buruak ondorio hori eragiten duten arrazoi objektiboak azaltzeko txosten bat aurkeztu beharko dio Giza Baliabideen Sailari. Txosten hori hautagaiari helaraziko zaio, eta hark hamar (10) egun balioduneko epea izango du (jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera) alegazioak aurkezteko. Bai dagokion saileko buruaren txostena, bai izangaiaren alegazioak, halakorik balego, hautagaiak lan egiten duen eremuko sindikatu-ordezkaritzari helaraziko zaizkio, eta bost (5) egun balioduneko epea emango zaie horiei, beren ondorioak idatziz aurkezteko. Izapidetze horren ondoren, Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko da espedienteak, eta bertan erabakiko da hautagaiak lan-poltsan zegoen aurreko egoeran jarraitzen duen edo, aitzitik, «Behin betiko baja» egoeran deklaritzen den.

5.4. *Behin-behineko baja*

Hautagaiak aldi baterako baja-egoerara igaroko dira (hau da, ez zaie deituko, baina poltsan jarraituko dute) dagokion zerrendan edo poltsa bereko bitan, salbu ezinbesteko kausaren bat gertatzen denean, honako kasu hauetan:

- a) Dagokion zerrendan, baldin eta Durangoko Udalean, bere erakunde autonomotako edo udal-erakunde publikotako bitarteko izendapen edo aldi baterako kontratu bidez zerbitzuak ematen ari bada, zerrenda horretatik jasotako eskaintzaren ondorioz.



- b) Dagokion zerrendan edo bietan, hautagaiak berariaz hala eskatzen duenean eskaintza bat jaso aurretik.
- Hautagaia ez da justifikatu beharko. Kasu horietan, aldi baterako bajaren gutxieneko iraupena urtebetekoa izango da, hautagaia eskatzen den unetik hasita, eta zerrendetako bati edo biei eragingo die, eskaeraren arabera. Egoera horren gutxieneko iraupena gaindituta, edozein unetan eskatu ahal izango du berriro lanerako prest egoerara pasatzea.
- c) Dagokion zerrendan, berau osatzen dutenek eskaintza bati uko egiten diotenean, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik. Honako hauek dira arrazoi justifikatuak:
1. Aldi baterako ezintasun-egoeran egotea.
 2. Haurdun, erditzean eta edoskitzaroan egotea, bai eta adopzioagatiko edo familia-harreragatiko lizentzia-egoeran ere.
 3. Izangaia ezkondu eta ondorengo egun naturalen barruan dagoenean, indarrean dagoen legerian aurreikusten den moduan. Edo kontratu-aldia garai horretan hasten denean. Berdin jokatu da izatezko bikoteen kasuan ere.
 4. Durangoko Udalean, haren erakunde autonomoetan edo udal-enpresa publikoetan edo handik kanpo lanean aritzea.

Behin aldi baterako baja-egoera eragin zuten arrazoiak amaituta, hautagaiak idatziz jakinarazi beharko dio Giza Baliabideen Sailari, eta beharrezko egiaztagiria aurkeztu beharko du hamar (10) egun balioduneko epean, alegatutako justifikazio-egoera (alta, kontratuaren amaiera...) amaitzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta a. egoera gertatzen denean, kasu horretan erabilgarri izatera ofizioz igaroko baita. Bestela, behin betiko baja-egoerara igaroko da, deia egin zaion zerrendan.

Edozein egoera justifikatzeko edo horietan edozein aldaketa eskatzeko, poltsak osatzen dituzten pertsonak, ezarritako epearen barruan, dokumentazioa eta dagozkien agiriak bidali beharko dituzte, e-mail bidez, helbide honetara:

lanpoltsak@durango.eus. Era berean, poltsan dagoen pertsona baten egoeran agertu behar duten gorabehera pertsonalak idatziz jakinarazi beharko dira, helbide elektronikoko berera.

6. Enplegu-hobekuntzak

Durangoko Udalean, haren erakunde autonomoetan edo udal-enpresa publikoetan karrerako edo bitarteko langile gisa edo lan-kontratu finko edo aldi baterako langile gisa lan egiten dutenak goragoko kategoriako lan-poltsetako kideak badira, poltsa horiei dagozkien eskaintzak egingo zaizkie.

Jatorrizko lanpostuan bitarteko funtzionario edo aldi baterako lan-kontratudun gisa lan egiten zutenek onartzen badituzte, jatorrizko lan-poltsako zerrendara itzuliko dira.

Karrerako funtzionario gisa edo lan-kontratudun langile finko gisa lan egiten zutenek onartzen badituzte, legez dagokion administrazio-egoeran geratuko dira plaza eta jatorrizko lanpostuari dagokionean.

Era berean, lanaldi partzialeko kontratua edo izendapena duten langileei lehentasuna emango zaie, baldin eta beren kategorian eta sailean lanaldia % 100era iritsi arte osatzeko aukera badute. Halaber, egoera horretan pertsona bat baino gehiago egonez gero, lehentasuna emango zaie bitarteko izendapena edo aldi baterako kontratua duten langileei. Nolanahi ere, ezin izango dira hiru izendapen, hiru kontratu, bi izendapen eta kontratu bat edo izendapen bat eta kontratu bi baino gehiago aldi berean egin.

7. Izendapenen eta kontratuen iraupena

Kontratu edo izendapenen iraupena horiek erabakitzeke administrazio-egintzak jasotzen duena izango da, baina iraupen edo kategoria desberdineko kontratazio bat baino gehiago dagoenean, blokean eskainiko dira; lehentasun-ordenaren arabera, lehentasuna duen izangaiak bere eskubideari komeni zaiona hauta dezan.



Eraginkortasun eta efikazia-arrazoiak direla eta, aldi baterako ezintasuna edo ezintasun asimilatua (amatasunagatiko lizentzia, adibidez) gertatu aurreko It aldiak eta/edo oporraldiak, bai eta edoskitze metatuak eta euskararen ordezkapenak ere, kontratu-aldi bakarra osatzen dute, eta ordezkapena eragin zuen gertakarian lanpostua zerbitzatu zuen pertsona berak beteko du.

Antzeko ondorioak eragiten dituzten egoeretan, Poltsen Batzordean erabakiko da aldi bakar baten eraketa.

Era berean, bitarteko edo aldi baterako kontratua lan-poltsa bateko hautagai bati egin bazaio, eta, hura amaitzean, gehienez ere bost (5) eguneko epean, lanpostu hori edo sail bereko beste bat berriro bete behar bada, sail horretan lanpostu bat hasieran bete zuen pertsona bera kontratatuko edo izendatuko da; nahiz eta aurreko aldiko arrazoi beragatik ez izan, salbu eta izendapen edo kontratu berriak sei (6) hilabete baino gehiago irautea aurreikusten denean.

8. Poltsak kudeatzeko batzordea

Poltsen kudeaketan sortzen diren zalantzak eta arazoak konpontze aldera, poltsen kudeaketarako batzordea sortzen da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Durangoko Udalean, bere erakunde autonomoetan eta udal-enpresa publikoetan ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek (ordezkari bakarra sindikatu bakoitzeko); alkateak edo Giza Baliabideen kudeaketan ordezkariak duen zinegotziak eta Giza Baliabideen arduradunak edo hautaketa-teknikariak, halakorik balego.

9. Desgaitasuna duten pertsonak

Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzen laguntzeko, lan-poltsa bakoitzeko kontratuen %10 (10etik 1) desgaituen ataleko kideei alternatiboki eskaintzeko ahalegina egingo da; betiere desgaitasunak hautatuari lan hori gauzatzea galarazten ez badio. Ezin bada, hurrengo kontratuan egingo lirarteke izapideak, eta horrela hurrenez hurren.

10. Derrigortasun-data iraungia duten hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak

Lanpostu-zerrendaren arabera derrigortasun-data iraungita duen hizkuntza-eskakizuna esleitura duten lanpostuak aldi baterako bete nahi direnean, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileei soilik egingo zaie deialdi, dagokion poltsaren ordena errespetatuz.

Lan-poltsa jakin bateko izangaiek edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte lan-poltsak sortu ondoren lortu dituzten hizkuntza-eskakizunen egiaztagirak. Aurkezten diren unetik aurrera, hizkuntza-eskakizuna iraungita duten lanpostuak eskaini ahal izango zaizkie baldin eta aurkeztutako agiriak eskatzen den euskara-maila edo handiagoa egiaztatzen badu. Lan-poltsa sortu ondoren aurkezten diren hizkuntza-eskakizun jakin bat egiaztatzen duten agiriak ez dute eraginik izango ezarrita zuen puntuazioan eta sailkapenean (ordenan).

11. Argitaratzea

Lan-poltsak sortzeko hautaketa-prozesu bakoitza edo espezifikoak amaitu ondoren, emaitza Durangoko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da.

12. Aurreko erregulazioaren jadanekotasuna eta ondorioak galtzea

Lan-poltsak kudeatzeko irizpideak ezartzen dituen araudia onartu ondoren, eraginik gabe geratuko da Durangoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren IV. eranskinean xedatutakoa 2014/2015 urteetarako. Akordio hori 2014ko abenduaren 16ko osoko bilkuran onartu zen.